



Vaibhav Raaj, Shashi Kant Prasad, Anton Pieper

# LARRUA ARRISKATZEN

## Lan eskubideen urraketa Indiako larruaren industrian eta zapatagintzan

*“Zutik eman behar dugu egun osoa ebakitze sailean, artritisa eta bestelako artikulazio minak izateko erreztasuna daukagu”. “Larruarekin egiten dugu lan eta hari darion usaina, oinetakoen atalak batzeko erabiltzen ditugun eransgarriak, eta ekoitzi prozesuan erabiltzen ditugun bestelako materialek, zorabioak eragiten dizkigute batzutan...ez dugu goserik eta etxera ailegatu bezain pronto ohera sartzean bakarrik pentsatzen dugu”.*

Indiako larru lantegi bateko, Tamil Naduko, langile baten adierazpenak dira. Lan eskubideen urraketa, larruaren eta zapatagintzaren industrian, orokorra izaten jarraitzen

du. Deichmann, Bata eta Rieker marka europearrentzat ekoizten dituzten fabriketan lan egiten duten langileek lan eskubideen urraketak ezagutzera eman zituzten: soldata duin baten azpitik dauden soldatak, derrigorrezko aparteko orduak, lan osasun eta segurtasunerako nahikoa ez den babesa, sindikatu eza hala nola generoaren eta kastaren araberako diskriminazioa eta esplotazioa.

Fitxa tekniko honek, larrugintzan eta zapatagintzan lan egiten duten pertsonen lan eskubideak aztertzen ditu, hala nola, sektorean lan egiten duten pertsonen gaur egungo egoera.


## LARRUAREN EKOIZPENA ETA ZAPATAGINTZA INDIAN

Urte askotan, India bigarren oinetako ekoizle handiena izan da Txinaren ondoren. 2001ean, 2.200 milioi oinetako pare ekoitzi zituen, munduko %9,6a. Indian milioi bat pertsona baino gehiago lan egiten zuen oinetako sektorean. Larruzko zapatagintza da, alde handiz, Indiako zapatagintza industriako garrantzitsua, bai produkzio mailan baita esportazio mailan ere. Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua, hala nola, Italia, Hong Kong eta Frantzia (1. Taula begiratu) dira esportatzaile nagusiak. Ze ingurumen eta gizarte baldintzatan ekoizten diren jakiteko, gero herrialde haueten saltzen diren oinetakoak, Indian jarri behar du arreta.

1.Taula: Larruaren eta larruzko produktuen esportazioko merkatu nagusiak Indian

| POSTUA | HERRIALDEAK             | 2014-15 (Milioi dolarretan) | Kuota (%) 2014-15 |
|--------|-------------------------|-----------------------------|-------------------|
| 1      | Alemania                | 800,2                       | 12,32             |
| 2      | AEB                     | 768,06                      | 11,83             |
| 3      | EB                      | 751,33                      | 11,57             |
| 4      | Italia                  | 504,26                      | 7,76              |
| 5      | Hong Kong               | 422,11                      | 6,5               |
| 6      | Frantzia                | 371,75                      | 5,72              |
| 7      | Espainia                | 351,27                      | 5,41              |
| 8      | Arabiar Emirerri Batuak | 281,07                      | 4,3               |
| 9      | Herberekak              | 224,92                      | 3,46              |
| 10     | Txina                   | 194,26                      | 2,99              |
|        | <b>Guztira</b>          | <b>4.669.23</b>             |                   |

1.irudia: Indiako larruzko eta larruzko oinetakoan lantegi nagusiak




Larruaren eta larruzko oinetakoan ekoizpenari zuzendutako zenbait kluster daude India osoan zehar. Lehenengo irudiak estatuak sailkatzen ditu Indiako larruzko eta oinetako lantegi nagusien arabera.



Historian zehar, garai kolonialetik, Tamil Naduko klusterrak buru izan dira Indiako larruko industrian, bai aurrerapen teknologikoetan bai esportazioan ere. Gaur egun, Tamil Nadu, larruzko eta oinetakoen ekoizpenean buru jarraitzen du izaten Indiako beste estatuen gainetik.

Tamil Nadulen industria Indiako hegoaldetik zentorren lehengai kopuru handiari erantzuna emateko garatu zen. Gaur egun herrialdean dauden industriaren klusterrak komunitate musulmandarren jabeen menpe daude. Haiiek hartu dute euroasiar enpresari aurrendarien txanda. Chennaiko klusterraz gain, Chromepet-Pallavaramen inguruan, Tamil Naduko herrialdearen ekoizpen zentru nagusiak Palar haranan (Velloreko distrituan) daude, Vaniyambadiko, Ambureko, Pernambuteko, Melvisharameko eta Ranipeteko klusterrekin, eta, Tamil Naduko beste zonalde batzuetan, Erodeko, Trichyko eta Dindiguleko klusterrekin.

## 2.Irudia: Larruzko ekoizpen klusterrak Tamil Nadulen.



Iturria: CEMCOT, s. n.

## LAN ESKUBIDEEN URRAKETA INDIAKO LARRUAREN ETA OINETAKOEN INDUSTRIAN



Larruzko eta oinetako enbustriako langileria lan eskubideen urraketa orokor eta sistematikoak pairatzen ditu. Urraketeta motak eta zenbaterainokoak diren aztertzeko helburuarekin egin zen gaineko ikerketa bat Indiako ekoizpen zentru nagusietan: Ambur (Tamil Nadul) eta Agra (Uttar Pradesh). Amburren bai oinetako enbustrietako bai larruko enbustrietako langileriak hartu zuen parte. Agran, ordez, ikerketa oinetako enbustrietan lan egiten zuen pertsonetan ardaizu zen. Oinetako enbustrietan elkarrizketatutako langileek egiten zituzten lanen artean gomaztatu, ebaki, josi, akabera egin, muntatu, paetatu, e.a. Larruzko enbustrietan lan egiten zutenak honako eginkizun hauek zituzten: esmerilatu, larrutu, lainoztatu, lehortu, aurrezurratu, tindatu, akabera egin, larrua lisatu, enbalatu, e.a.

### *Kontratatzeko modu nagusiak*

Elkarrizketatutako pertsona gehienek egunez eguneko soldata bat jasotzen zuten edota tarifa bat destajuko lanarengatik. Beste guztiak Aldi baterako lanerako enpresen bitartez, ETTren bitartez, kontratatzen zituzten. Hauek dira enbustrietan nagusi diren kontratatze moduak.

### *Lan kontratuak eta Gizarte Segurantzza*

Pertsona ugari izendapen komunikazio ofizialik ez edota lan kontraturik ez zutela aitortu zuten. ETT eta langileen arteko ahozko akordioak oso zabalduta daude, batez ere Agran. Lan harremana frogatzeko modurik gabe – ez dute identifikazio txartelarik- langileek Gizarte Segurantzako prestaziorik ez dute jasotzen, ez Prebisio Funtstatik, ezta Estatuko Langile Asegururitik.

### *Genero eta Kasta arau tradizionaletan oinarritutako diskriminazioa*

Lan indarraren jatorriak argi uzten du, dudarik gabe, kasta sistema zapaltzailea mantentzen dela larruaren eta oinetako enbustrietan. Ia langileri osoa kasta erregistratu batean dago edota bestelako talde marjinatu batean. Gainera, genero diskriminazioa enbustrietan, lanaren esker on edota kualifikazio ekitatiboa ezeztatzen zaie emakumeei. Emakumeak jostun edota laguntzaile lanak egitera baztertuak izaten dira, deuseztatuak eta soldata baxuagoak jasotzen dituztenak. Emakumeek gizonek baino diru gutxiago jasotzen dute lan bera egiteagatik. Askotan, emakumeek ez dute sostengu mekanismorik, beren semeentzako haurtzaindegiak adibidez, edota sexu jazarpenak salatzeke barne batzordeak, legeak eskatzen dituenak.

### *Soldatak*

Agran, 2014ko urria eta 2015eko otsailaren artean, langileri erdi-kualifikatuaren gutxieneke soldata 3,65 euro eguneko (diario???) zen (271,43 rupia). Hau da, hilean 87,5 euro hileko jasotzen zuen (6.514 rupia astean 6 egun lan egiteagatik, 4 aste hilean). Amburren, gutxieneke soldata baxuagoa zen: 2014ko apirila eta 2015eko martxoaren artean 1,64 euro eguneko (121,91 rupia), hau da, 39 euro hileko (2.925,84 rupia astean 6 egunengatik, 4 aste hilean). Elkarrizketatutako langileriaren gehiengoak gutxieneke soldata baino diru sarrera altuagoak zituen. Soldata baxuak konpentsatzeko aparteko orduak egiten dituztelako eta hilean egun gehiago lan egiten dutelako.

Asia Floor Wage Alliancenen datuen arabera, 2015ean langileriarentzat duina den soldata bat Indian hileko 251 eurokoa izan beharko litzateke (18.727 rupia). Tarifa honen barruan, familiak jasotzen duen laguntza, janari beharrak, eta etxebizitza, osasun, hezkuntza eta aurrezki txikiak bestelako oinarritzko beharrak daude. Elkarrizketatutako pertsona guztien diru sarrerak (20 eta 161 euroren artean edota 1.500 eta 12.000 rupiaren

artean) soldata duin bat izateko gomendatutako mailen oso azpitik daude.

### *Lanaldia eta destaju lana*

Izugarri baxuak diren soldata hauekin, langileriaren gehiengoak destaju soldataren truke lan egitea erabakitzen du, modu horretan haien diru sarrerak zuzenean proportzionalak dira eguneroko produktibitatearekin. Sistema honetan, langileriak 8 eta 12 ordu bitartean lan egiten du egunero, gehiago irabazteko helburuarekin. Agrako diru jasotze sistemak kanpoan uzten du aparteko lana eta beraz ez dute tarifa handiagoak jasotzen aparteko orduengatik. Gainera, sistema honek ez ditu asteko lan etenak aurre ikusten, ezta gaixotasun bahimenak, noizean behineko faltak, edota bestelako bahimenik.

### *Sindikatu askatasuna eta negozioazio kolektiboak*

Agran oso gutxi ezagutzen zituzten sindikatuen garrantzia eta eginkizunak. Galdetutako lantegiek ez zuten sindikaturik. Lan arazoak bakarka kudeatzen dira enkargatuarekin, edota ETTarekin. Aramburren, elkarrizketatutako 113 pertsonen artean, 55ek ez ziren kapaz izan sindikatu askatasunaren inguruko galderak erantzuteko edota ez zuten erantzun nahi. Hala ere, lan baldintza nekagarriak langileriaren osasunarekin "ordaintzen" dira.

### *Osasuna eta segurtasuna lanean*

Elkarrizketatutako pertsonen artean, askok adierazi zuten ez zutela botikinik lantokian. Askok ez zuten babes ekipoarik eta ez zuten informaziorik jaso lanean izan zitezkeen arrisku egoerei buruz ezta beharrezko emergentzi neurriei buruz. Ebakiak eta erredurak ohikoak dira langileen artean. Estatuko osasun segurantzaren zerbitzuetatik kanpo daudenez, haiek ordaindu behar dituzte beren tratamenduek balio dutena. Aramburren, oso zaila da empresak ematen zituen babes ekipoak eguneroko produkzio helburu zorrotzekin elkarbitzea, larru eta oinetako produkzio unitateetan, langileria izugarri moteltzen duelako. Produkzio altua nahitaezkoa da biziraupen soldatak mantentzeko. Agran, presioa antzekoa da eta langileriak lan jardunaldi luzeak egiten ditu, beren osasunataz edota eskubideetatik gehiegi larritu gabe, destaju lana sistemarekin gehiena irabazteko helburuarekin.

### **Kamakshi, Aramburreko oinetako lantegi bateko langileak (38 urte).**

Kamakshi (bere izena aldatu dugu, hark horrela eskatuta), emakumea, gizarte eta hezkuntzaren aldetik desabantaila duen kastakoa (Other Backward Classes), duela 22 urte lan egiten du oinetakoen industrian, Aramburren. Eskola bukatu eta ondoren, oraindik adin txikikoa zela, oinetakoen lantegi batean hasi zen lanean pobrea zen bere aitari laguntzeko. Ezkondu eta gero, lanean jarraitu zuen bere senarraren diru sarrerak osatzeko. Ebaki departamentuan hamarkadako esperientzia izanda (lan gaituzat hartzen dena), 60 euroko soldata basea jasotzeko eskubidea dauka (4.500 rupia) eta bere hileko soldata 94 eta 120 euroren artean egoten da (7.000-9.000 rupia).

Bere jardunaldi luzea etxeko lanak eta seme-alabak atenditzen hasten da, lanera joan aurretik. Ebaki departamentuan egun osoa zutik lan egiten ematen du, bere gainbegiralearen begirada arretatsuen pean, eguneroko ebakera helburuak betetzen dituela, kalitate handiko eta geroz eta larru gutxiagoa deseustatuz, ziurtatzen dela. Gainbegiraleen zaingoa, erosle kanpotarraren esigentzia zehaztuta gutxi etortzen dira bat. Agrako lantegietan ez bezala, Kamakshik lan egiten duen lantegian, jantoki, istripu baten ondorengo sosenentzako erizaindegia, eta haurtzaindegia ere badu. Hala ere, lan baldintza nekagarriengatik "ordaintzekoa" asko da langileriaren osasunarekin. Zutik lan egiteak artritis eta artikulazioetan mina handiak eragiten du, Kamakshik dioenez. Larruak duen usain gogorra eta lantegiko sustantzia kimikoek zorabioak eragiten diola ere aitortzen du, jateko gogoak kentzen dizkio, lan jardunaldia gogorra izanda ere. Lan lesioak ere maiz gertatzen dira ere, batez ere, josteta departamentuan.

Kamakshik aitortzen du zuzendaritza bihozberagoa dela etekin handiagoa ateratzen duten langileekin eta ordu erdiko bazkaltzeko pausari, deskantsu txikiak hartzea uzten dietela. Hala ere, ez da konforme agertzen kan-teengatik erreparazio mekanismorik ez dagoelako. Lan eskubideen garrantziaz hausnartuta, gobernuko lan departamentuko funtzionarioen eta lantegiko zuzendaritzaren arteko konplizitateaz susmo dago. Lan inspektzioetan, oso gutxi eta denbora luze tarte egiten direlarik, ez da esfortzurik egiten langileriarengana hurbiltzeko eta haien arazoei ekiteko. Zuzendaritzak lantegiko sindikatua mugatu egin duela uste du Kamakshik, horregatik, langileria bere arazoak bakarka konpontzeko ahal egindu behar da. Bi hamarkada baino gehio lanean daramatzala, zuzendaritzak langileria pixkat hobeto zaintzea nahiko luke Kamakshik.

## ONDORIOAK

Azken finean, Indiako oinetako eta larruko industrien azterketa, lan eskubideen urraketa nabarmena adierazten du, genero eta kasta egitura baztertzailerik larriagotzen duelarik. Badirudi, Amburreko langileriak Gizarte Segurantzaz sartzeko Agrakoa baino erreztasun handiagoa duela. Kontestu honetan, lan legerian egiten ari diren erreformak nazioarteko finantza-kapitalak lan esku flexiblea lortzeko helburuarekin ari dira egiten eta langileriak giza eskubideen jabeak bezala onartuak izateko dituzten zailtasunak areagotuko dira. Egoera hau daogenero heman da Agrako langileriaren artean. Horregatik, eskubideen urraketei buruzko zifrak eman eta ondoren, estudio honek, oinetako eta larruko langileriari justizia egitea, beren historioak kontatzeko aukera emanez, du helburu.

Indiako larruaren eta oinetakoen langileriak nazioarteko merkatuaren lurrunkortasunari eta geroz eta liberalizatuago dagoen erregimen bateri egin behar dio aurre. Horri gehitu behar zaio, lan legeria geroz eta ahulagoa bihurtzen dela eta sindikatu mugimendua geroz eta gehiago indargabetzen ari dela. Gainera, lan alternatibo bat lortzeko oportunitaterik ez dute. Indiako fabriketatik hornitzen diren nazioarteko markek, premiazko neurriak hartu beharko lituzkete. Horrela, haien irabaziak oinetako industriaren hornidura katearen azkeneko muturrean dauden pertsonen bizitzan truke ez direla bertmatuko lukete.

*Iturri guztiak 'Larrua arriskatzen. Lan eskubideen urraketa Indiako larruaren industrian eta zapatagintzan' txosten osotik datoz.*

## ARGITALPENA

**Egileak:** Vaibhav Raaj, Shashi Kant Prasad y Anton Pieper | **Edizioa:** Melanie Deter | **Diseinua:** Julia Löw, [www.weiderand.net](http://www.weiderand.net) | **Itzulpena euskaraz:** Itziar Pérez Argomaniz | **Gaztelerako edizioa:** Alba Trepát (Federación SETEM) | **Maketazioa:** Concepte Gràfic | **Argitalpena:** Federación SETEM | **2016ko abenduan argitaratua**



Fitxa tekniko hau Europako Batasunaren laguntza ekonomikoarekin egin da. Fitxaren edukien gaineko erantzukizun osoa Aldatu Zure Zapatak kanpainarena da, eta edukiok ez dituzte inola ere Europako Batasunaren iritzirik islatzen.



**ALDATU  
ZURE ZAPATAK**